

Ikus-entzunezko lanen XVI. lehiaketa “Eman minutu 1”

Eman minutu 1 - KULTURA

OINARRIAK

UN Etxea- UNESCO Sustatzeko Euskal Herriko Elkartea nazioarteko borondatea duen euskal GKE bat da, eta joan den 34 urteotan Bakearen Kulturaren eta Giza Garapen Iraunkorraren alde ari da lanean, eskubideak eta erantzukizunak, biak, aintzat hartuko dituen kulturaren alde; pertsonak, gizarte-erakundeak, hizkuntza- eta kultura-komunitateak eta herriak aintzat harturik, hiritargo globa demokratikoa eraikitzeko lan egingo duen mundu baten alde. Horixe da, hain zuzen, UNESCOk, eratu zenean, bere gain hartutako xedea: bake bidezkoa eta duina eraikitzea, pertsona eta haren duintasuna eta balio gorenak ardatz harturik.

“Eman minutu 1” Lehiaketak, edizio bakoitzean, giza eskubideen inguruan hobekien defendatzen, bultzatzen, aldarrikatzen, zabaltzen eta/edo kontzientziatzen dituzten minutu bateko ikus-entzunezko piezak saritzen ditu.

Guztiak berdina garela eta eskubide eta betebeharrak berberak ditugula aldarrikatzen du “Eman Minutu 1” lehiaketak, eta denok defendatu behar ditugula pertsona guztien eskubideak. Inork ere ezin ditu eskubide horiek saihestu eta, hortaz, eskubideok urratzen diren tokian horiek babesteko betebeharra du.

Hauek dira UN Etxearen “Eman minutu 1” Ikus-entzunezko lanen XVI. lehiaketaren

OINARRIAK

1. 2025ean, XVI. edizioan, lehiaketak "Eman minutu 1 - KULTURA" izenburua du. Edizio honetan minutu bateko ikus-entzunezko pieza onenak sarituko dira, eskubide kulturalak defendatzen, sustatzen, aldarrikatzen, zabaltzen eta/edo kontzientziatzen dutenak.

Eskubide kulturalak giza eskubideen kategoria bat dira, eta pertsona eta komunitateei aukera ematen diete bizitza kulturalera iristeko, parte hartzeko eta horretan laguntzeko, bai eta haien nortasuna eta ondarea zaintzeko ere. Eskubide horiek funtsezkoak dira giza duintasunerako, eta nazioarteko hainbat tresnatan onartuta daude.

Eskubide kulturalak giza eskubideen sistema unibertsalaren parte dira. Sistema hori nazioarteko itunek eta adierazpenek ezartzen dute, hala nola:

- [Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala](#) (1948) 27. artikulua.
- [Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna](#) (1966) 15. artikulua.
- [Kultura Aniztasunari buruzko UNESCOren Adierazpena](#) (2001).
- [Kultur Adierazpenen Aniztasuna Babesteko eta Sustatzeko Konbentzioa](#) (UNESCO, 2005).
- [Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpena](#) (2007).
- [Behaketa Orokorra 21](#) (2009), NBEko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea (CDESC).
- [Eskubide Kulturalari buruzko Friburgoko Adierazpena](#) (2007).

[Mondiacult 2025 konferentziak](#), 2025eko irailaren amaieran Bartzelonan ospatua, adierazpen batekin amaitu du, kultura garapen-agendaren helburu propio gisa aitortzea eskatzen duena. 160 delegaziotik gora [dokumentu bat onartu zuten](#) aho batez, eskubide kulturalak politika publikoen erdigunean kokatzen dituenak. UNESCOk, horrela, kultura ardatz hartuta, erronka globalak gainditzeko bide gisa berretsi du multilateralismoa.

Nazio Batuen eskubide-sistemaren erronka handienetako bat eskubide kulturalen inguruan argitzea eta sentsibilizatzea da. Eskubide horiek "eskubide txikitat" jotzen dira, eta orain arte ibilbide laburragoko tresna arau-emaileak garatu dira.

Eskubide kulturalen bidez ez da babesten ondarea bera, ezta adierazpen artistikoak ere; aitzitik, pertsona guztien parte-hartzea zaintzen dute (bereziki, emakumeena, pertsona migratuena, dibertsitate funtzionala duten pertsonena, LGTBIQ+ komunitatearena, ijito-herriarena, etab.), irakaskuntza artistikoa, sorkuntza, askatasun artistikoa, artisten mugikortasuna, artisten eskubide ekonomiko eta sozialak, ondarearen eta beste ekipamendu kultural batzuen sarbidea eta gozamina, etab.

Epaimahaiak bereziki baloratuko ditu:

- Eskubide kulturei, pertsona guztiek bizitza kulturean duten parte-hartzeari (*bereziki, emakumeek, migratuek, dibertsitate funtzionala duten pertsonak, LGTBIQ+ komunitateak, ijito-herriak, etab.*), irakaskuntza artistikoari, sorkuntzari, askatasun artistikoari, artisten mugikortasunari, artisten eskubide ekonomiko eta sozialei, ondarearen eta beste ekipamendu kultural batzuen eskuragarritasunari eta gozamenari eta abarri buruzko hausnarketa egiten duten bideoak.
- Giza eskubideak sustatzen, babesten eta konprometitzen dituzten bideoak.
- Inor atzean utzi gabe, inor kanpoan utzi gabe, etorkizun iraunkorra eraikitzen lagunduko duten bideoak.
- Desberdintasuna eta kultura-, gizarte-, identitate- eta genero-aniztasuna onartzea eta gizarteratzea.
- Pertsonak beren eskubideak banaka edo taldean eskatzeko dituzten gaitasunak eta estrategiak ikusaraztea.
- Gizartea mundu bidezkoago, inklusiboago, bidezkoago eta iraunkorrago baten aldeko borrokan inplikatzeko.
- Genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea defendatzen duten bideoak.
- Tonu paternalistak, biktimizatzaileak edo sensazionalistak saihestu beharko dira.

SARIAK

2. Hauek izango dira SARIAK, lau kategorietan:

() Sorkuntza artistikoko sari horiek materia fiskaleko indarreko erregulazioan jarritakoari lotuta egongo dira. Kategoria bakoitzean sartutako zerga.*

‘EMAN MINUTU 1’ SARIA. *Kategoria nagusia eta sari gorena.*

SARIA: Dokumentalaren errealizazioa finantzatuko da, guztira 5.000^(*) euroko zenbatekoan + garaikurra.

Kategoria hau 18 urtetik gorako parte-hartzaileentzat da.

Lan irabazlea epaimahai espezializatu baten irizpideen arabera aukeratuko da, lehiaketaren oinarriak betetzen baldin baditu.

Kategoria honetako irabazleek saria onartzeko legezko agiri bat sinatuko dute. Agiri horretan, aurretik adierazitako kopuruarekin dokumental bat egiteko konpromisoa jasoko da.

Egindako dokumentala saria lortu eta hurrengo urteko azaroan aurkeztuko da UN Etxeak Bilboko *Fair Saturday* jaialdiaren barruan antolatutako ekitaldi publiko batean.

‘EUSKARAZKO MINUTURIK ONENA’ SARIA

SARIA: 1.250 €^(*) + garaikurra

Euskarazko bideo onenaren saria hizkuntza horretan aurkeztutako lan onenari emango dio epaimahaiak, betiere kategoria nagusian saririk lortu ez badu. Kasu horretan, euskarazko bideo onenaren saria epaimahaiak euskaraz aurkeztutako bigarren bideorik onenari emango dio.

‘EKIN ETA EGIN’ SARIA

SARIA: 600 €^(*) + garaikurra

Sari hau 18 urtetik beherakoei, ikastetxeei, gazteen kultur elkarteei eta abarri zuzenduta dago. Gazteek bakarka edo taldean aurkeztu ahal izango dute beren lana.

Epaimahaiak 18 urtetik beherakoek egindako bideorik onenari emango dio saria, betiere "Euskarazko minuturik onena" saria lortu ez badu. Kasu horretan, epaimahaiaren ustez 18 urtetik beherako gazteek aurkeztutako bigarren bideo onena denak jasoko du "Ekin eta Egin" saria

'UN ETXEA' SARIA

SARIA: 600 € (*) + garaikurra

Saria bozketa bidez emango da, UN Etxea elkarteko kideen artean.

[UNESCOren misioari](#) ondoen egokitzen zaion mezua duen bideoari emango zaio saria, baldin eta aurreko hiru sarietako bat lortu ez badu. Kasu horretan, aurkeztutako bigarren bideorik onenak jasoko du "UN Etxea" saria, kategoria horretako eskakizunei egokituta.

Kategoria bakoitzeko bideo irabazleak www.dame1minutode.org webgunean eta UN Etxeko YouTube kanalean <https://www.youtube.com/@UNetxea> sartuko dira eta ikusgai egongo dira.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

3. Bideoek **minutu bateko iraupena** izango dute gehienez. Iraupen horretatik kanpo geratzen dira pieza irekitzeko eta/edo ixteko kreditu-tituluak, nahi den iraupena izan dezaketenak.

Edoizein hizkuntzatan aurkeztu ahal izango dira eta honako formatu hauetakoren batean: mov, avi, flv,, mkv, mpeg, mp4.

4. Ikus-entzunezko pieza bakarka zein taldean egin daiteke. Nahi adina ikus-entzunezko pieza aurkeztu ahal izango dira.

5. Lanak smartphonearekin, webcamarekin edo argazki- edo bideo-kamerarekin ere egin ahal izango dira, baina aurrez adierazitako bost formatuetako batean (mov, avi, flv, mkv, mpeg eta mp4) eta ahalik eta bereizmen handienez aurkeztu beharko dira. Lanak egiteko edozein teknika edo postprodukzio mota erabil dezakete egileek.

6. Lehiaketan izena emateko, <https://dame1minutode.org> web orrian dagoen formularioa bete beharko da.

18 urtetik beherako parte hartzaileak egonez gero:

1 eranskina edo 2 eranskina beteta, dame1minutode@unetxea.org helbidean, aurkeztu beharko dute, oinarrietan erantsita datozenak:

(Eranskinak Word formatuan deskarga daitezke [esteka honetan](#))

- 1 Eranskina. Baimen kolektiboa: hala nola, ikasgela, ikastaro, ikastetxea, elkarte, gaztelekua, topagunea, etab. Aurkezten diren lanetarako, ikastetxeko zuzendaritzaren ardura izango da betetzea, kontuan izanik adingabeen familien eta/edo legezko ordezkarien aldez aurreko baimena izan beharko duela..
- 2 Eranskina. Banakako baimena: maila partikularrean aurkezten diren lanetarako, parte hartzen duen adingabearen edo adingabeen amaren, aitaren edo tutorearen baimena beharko da..

7. Hiru modu daude lanak guri helarazteko:

1. GoogleDrive, OneDrive, iCloudDrive edo Dropbox-en bidez hodeian partekatuz.
2. Bidalketa-zerbitzuen bidez, hala nola WeTransfer, Smash, pCloud Transfer, etab
3. e-postaz (10MB gehienez).

- Bideoak partekatzeko edo bidaltzeko helbidea dame1minutode@unetxea.org da.
- Bideoak bidaltzeko **ez da onartuko** YouTube, Vimeo edo ikus-entzunezko beste edozein plataforma edo sare sozial erabiltzea (Facebook, Twitter, Instagram, TikTok, etab.)

8. 2026ko urtarrilaren 31an, 23:59an bukatuko da izena emateko eta lanak bidaltzeko epea (egun horretatik aurrera bidalitako lanak ez dira lehiaketan sartuko).

LEGEZKO BALDINTZAK

9. Lanak originalak izango dira. Antolakuntzak ez du bere gain hartuko aurkeztutako lanek egile-eskubideen arloan egin ditzaketen arau-haustekak.

Egileak behar bezala kudeatuta eduki beharko ditu aurkeztutako bideoan agertzen den edozein argazki, ilustrazio edo ikus-entzunezko edo/eta grafikoko baliabide erabiltzeagatik eskubideak. Beste obra batzuetako baliabideak erabili badira, egilea izango da erantzule bakarra arrazoi horiengatik gerta daitekeen edozein gorabeheraren aurrean, eta obra berehala kenduko da.

10. Bideoa egiteko Adimen Artifizialeko (AA) sistemak erabiltzen badira, egileak adimen artifizialean oinarritutako sorkuntza-tresnen erabileraren berri eman beharko du, bideoa formalizatzean duen esku-hartzearen maila zehaztuz eta jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzen direla bermatuz. Balorazioari dagokionez, giza esku-hartzea adimen artifizialaren (AA) erabileraren gaineratik egongo da.

11. Lehiaketaren antolatzaileek eskubidea izango dute zenbait lan kanpoan uzteko. Hain zuzen, lehiaketaren gaiarekin loturarik ez duten edukiak dituztenak edo kalitatezko baldintza tekniko gutxienekoak betetzen ez dituztenak.

12. Lehiakideek, lehiaketa honetan parte hartzean, onartu egiten dituzte hemen adierazitako oinarriak. Edozein parte-hartzailek oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, lehiaketa hau automatikoki baliogabetuko da.

UN Etxeak oinarri hauetan jasota ez dauden ustekabeko kasuei buruz erabakiko du.

13. Obren egileek lehiaketara lagatzen dituzte haien erreprodukzio, komunikazio eta banaketa publikorako eskubideak. Eskubide horiek egile-izaera aitortuta gauzatuko dira beti, lehiaketaren emaitza argitaratzeko helburu bakarrarekin, betiere lehiaketaren sustapen orokorraren esparruan, eta ez dute arrazoi horrengatik inolako kontraprestaziorik jasotzeko eskubiderik izango.

14. Parte-hartzaileek emandako datu pertsonalak UN Etxeak tratatuko ditu, erantzukidetasun-erregimenean, lehiaketan parte hartzea kudeatzeko eta, hala badagokio, saritutako parte-hartzaileei dagozkien sarien banaketa eta gozamina kudeatzeko, oinarri hauek onartzean alderdien artean ezartzen den kontratua oinarri hartuta.

Datu pertsonal horiek legezko betebeharrak betez komunikatu behar zaizkien entitate eta/edo organismo publikoei baino ez zaizkie jakinaraziko.

EPAIMAHAIA

15. UN Etxeak giza eskubideetan, lehiaketaren gai nagusian eta ikus-entzunezkoen arloan adituak diren pertsonen osatutako epaimahai bat izendatuko du edizio bakoitzean. Lehiaketaren webgunean eta sare sozialetan jakinaraziko da, bilera egin aurretik.

16. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

17. Epaimahaiak sari bat edo guztiak eman gabe utzi ahal izango ditu, sari bereziak eman ahal izango dizkie bere ustez sari edo aipamen berezia merezi duten bideoei, eta sariak eman ahal izango ditu ex aequo (kasu honetan, sariaren zenbatekoa saridunen artean banatuko da).

18. Epaimahaia eztabaidatu ondoren, UN Etxea parte-hartzaileekin harremanetan jarriko da 4 kategorietarako finalista izendatu diren piezen berri emateko. Gainera, finalisten zerrenda lehiaketaren webgunean eta sare sozialetan argitaratuko da.

19. Sari banaketa ekitaldia 2025eko martxoan egingo da. Ospakizunaren eguna, ordua eta lekua, eta izena emateko modua eta epea ahalik eta lasterren iragarriko dira lehiaketaren webgunean eta sare sozialetan.

Sari-banaketan, finalistak diren bideo guztiak proiektatuko dira eta epaimahaiaren erabakia aldarrikatuko da.

Partaide bakoitzak bere gain hartuko du Sari banaketara joateko gastuak.

KONTAKTUA

20. Lehiaketari buruzko beste edozein informazioren berri jakiteko, UN Etxera jo dezakezue, www.dame1minutode.org bisita dezakezue edo e-mail bat bidal dezakezue helbide honetara: dame1minutode@unetxea.org.

Lehiaketa amaitu arte, *Facebook eta Instagram* gizarte-sareetan, **@dame1minutode** kontuan, eguneratuko da informazio guztia.

Antolatzen du



Babesten dute



DATUEN BABESA.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra betetze aldera, jakinarazten da datu pertsonalak datu- base batean jasoko direla eta datu-base hori soilik lehiaketa kudeatzea erabiliko dela. Datuak horretarako bestetarako ez dira erabiliko.

Fitxategian jasotako zuri buruzko datuak eskuratu, deuseztatu, zuzendu eta haien aurka jotzeko eskubidea duzu. Hiru bide dituzu horretarako: eskubidea posta elektronikoz bidaltzea info@unetxea.org helbidera, 94 427 64 32 telefono-zenbakira deitzea edo posta arrunta erabiltzea: UN Etxea. Uribitarte pasealekua, 12, 2. bulegoa. 48001 Bilbo.
